



I. TITULUA AURREKONTUEN ONESPENA, EREMU SUBJEKTIBOA ETA EDUKIA

1. artikulua. Aurrekontuak onestea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2026. urterako aurrekontu orokorrak onesten dira, foru arau honetan ezarritako eran.

2. artikulua. Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren eremua.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2026. urterako aurrekontu orokorrak honela daude osatuta:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontua.
- b) Uliazpi Fundazioa eta Kabia foru organismo autonomoen aurrekontuak.
- c) Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA, Etorlur Gipuzkoako Lurra SA, Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte SA (IZFE) eta Gipuzkoa Zainduz SA merkataritzako foru sozietateen aurrekontuak.
- d) Foru fundazioen aurrekontuak.
 - Kirolgi Fundazioa.
 - Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa.
 - Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa.
 - Ziur Fundazioa.
 - Fundación Adinberri Fundazioa.
 - MUBIL Fundazioa.
 - BSTK Fundazioa.

3. artikulua. Aurrekontu orokorren edukia.

1. Ordainketa kredituak eta sarrera bateratuen egoera-orria 7.473.912.115,00 euro izango dira 2026ko ekitaldian, I. eranskinean laburtutakoaren arabera.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuko gastuen egoera-orria 7.224.583.055,00 euro da ordainketa kredituei dagokienez, eta 351.093.923,00 euro, berriz, konpromiso kredituei dagokienez; II-I. eranskinean jasotzen da nola banatzen diren 2026tik aurrerako aurrekontu ekitaldietan.

Aurrekontu propioaren kasuan, gastuen egoera-orria 1.296.530.235,00 euro da. Aurrekontu propioa lortzeko, aurrekontu osoari kendu

TÍTULO I DE LA APROBACIÓN, ÁMBITO SUBJETIVO Y CONTENIDO DE LOS PRESUPUESTOS

Artículo 1. Aprobación.

Se aprueban los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio 2026 en los términos establecidos en la presente norma foral.

Artículo 2. Ámbito de los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Integran los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio 2026:

- a) El presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- b) Los presupuestos de los organismos autónomos forales Fundación Uliazpi y Kabia.
- c) Los presupuestos de las sociedades mercantiles forales Bidegi Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A., Etorlur Gipuzkoako Lurra S.A., y Sociedad Foral de Servicios Informáticos S.A. (IZFE) y Gipuzkoa Zainduz S.A.
- d) Los presupuestos de las fundaciones forales:
 - Kirolgi Fundazioa.
 - Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa.
 - Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa.
 - Ziur Fundazioa.
 - Fundación Adinberri Fundazioa.
 - MUBIL Fundazioa.
 - BSTK Fundazioa.

Artículo 3. Contenido de los presupuestos generales.

1. Los créditos de pago así como el estado de ingresos consolidados alcanzan para el ejercicio 2026 el importe de 7.473.912.115,00 euros, según el resumen que se recoge en el anexo I.

2. El estado de gastos del presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa asciende, en cuanto a créditos de pago, a la cantidad de 7.224.583.055,00 euros; y en cuanto a créditos de compromiso, a la cantidad total de 351.093.923,00 euros, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores al 2026 se detalla en el anexo II-I.

El estado de gastos del presupuesto propio, siendo este el presupuesto total menos los créditos destinados al pago del cupo al Estado, a las



egiten zaizkio Estatuarentzako kupoa, Finantzen Euskal Kontseilutik ondorioztatutako ekarpenak eta Udalak Finantzatzeko Foru Funtza ordaintzeko kredituak.

Foru Aldundiaren aurrekontuko sarreraren egoera-orria 7.224.583.055,00 euro da, haren barruan sartuta diruzaintzako gerakina (16.307.600,00 euro).

3. Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoaren aurrekontuko gastuen egoera-orria 25.941.000,00 euro da; eta 150.000,00 euro, berriz, konpromiso kredituei dagokienez; II-II eranskinean jasotzen da nola banatzen diren 2026tik aurrerako aurrekontu ekitaldietan.

Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoaren aurrekontuko sarreraren egoera-orria 25.941.000,00 euro da.

4. Kabia foru organismo autonomoaren aurrekontuko gastuen egoera-orria 74.983.145,00 euro da; eta 9.090.211,00 euro, berriz, konpromiso kredituei dagokienez; II-III eranskinean jasotzen da nola banatzen diren 2026tik aurrerako aurrekontu ekitaldietan

Kabia foru organismo autonomoaren aurrekontuko sarreraren egoera-orria 74.983.145,00 euro da.

5. Merkataritzako foru sozietateen gastu aurrekontuen zenbatekoa 278.415.008,00 euro da, eta banaketa hau du:

- Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea SA (IZFE): 43.437.614,00 euro.
- Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA: 224.688.083,00 euro.
- Etorlur Gipuzkoako Lurra SA: 2.304.227,00 euro.
- Gipuzkoa Zainduz SA: 7.985.084,00 euro

Sozietate horien baliabide zenbatetsiak eta haietako bakoitzarentzat onetsitako zuzkidurak berdinak dira.

6. Foru fundazioen gastu aurrekontuen zenbatekoa 16.257.226,00 euro da, eta banaketa hau du:

- Kirolgi Fundazioa: 5.441.500 euro.

aportaciones derivadas del Consejo Vasco de Finanzas y al Fondo Foral de Financiación Municipal, asciende a la cantidad de 1.296.530.235,00 euros.

El estado de ingresos del presupuesto de la Diputación Foral asciende a 7.224.583.055,00 euros, incluyendo remanente de tesorería, por un importe de 16.307.600,00 euros.

3. El estado de gastos del presupuesto del organismo autónomo foral Fundación Uliazpi asciende a la cantidad de 25.941.000,00 euros y, en cuanto a créditos de compromiso, a la cantidad total de 150.000,00 euros, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores al 2026 se detalla en el anexo II-II.

El estado de ingresos del presupuesto del organismo autónomo foral Fundación Uliazpi asciende a 25.941.000,00 euros.

4. El estado de gastos del presupuesto del organismo autónomo foral Kabia asciende a la cantidad de 74.983.145,00 euros y, en cuanto a créditos de compromiso, a la cantidad total de 9.090.211,00 euros, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores al 2026 se detalla en el anexo II-III.

El estado de ingresos del presupuesto del organismo autónomo foral Kabia asciende a 74.983.145,00 euros.

5. Los presupuestos de gastos de las sociedades mercantiles forales alcanzan la cuantía de 278.415.008,00 euros, cuyo desglose es el siguiente:

- Sociedad Foral de Servicios Informáticos SA (IZFE): 43.437.614,00 euros.
- Bidegi Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A: 224.688.083,00 euros.
- Etorlur Gipuzkoako Lurra SA: 2.304.227,00 euros.
- Gipuzkoa Zainduz SA: 7.985.084,00 euros

Los recursos estimados de las citadas sociedades ascienden al mismo importe que las dotaciones aprobadas para cada sociedad.

6. Los presupuestos de gastos de las fundaciones forales alcanzan la cuantía de 16.257.226,00 euros, cuyo desglose es el siguiente:

- Kirolgi Fundazioa: 5.441.500 euros.



- Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa: 1.408.741,00 euro.
- Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa: 1.829.400,00 euro.
- Ziur Fundazioa: 2.224.684,00 euro.
- Fundación Adinberri Fundazioa: 1.160.206,00 euro.
- MUBIL Fundazioa: 2.717.695,00 euro.
- BSTK Fundazioa: 1.475.000,00 euro.

Fundazio horien baliabide zenbatetsiak eta haietako bakoitzarentzat onetsitako zuzkidurak berdinak dira.

4. artikulua. Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorrak hartzen dituen aurrekontuak.

1. Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrekontuaren sarreraren eta gastuen egoera orria jasotzen da, 8.886.550,00 eurokoa, eta konpromisozko kredituei dagokienez, 29.252,00 eurokoa

2. Honako partzuergo hauen aurrekontuak jasotzen dira:

- Gipuzkoako Ur Kontorsioaren aurrekontu kontsolidatua: 57.826.000,00 euro, bai sarreraren egoera-orriari bai gastuen egoera-orriari dagokienez.
- Gipuzkoako Hondakinen Kontorsioaren aurrekontu kontsolidatua: 54.095.877,00 euro, bai sarreraren egoera-orriari bai gastuen egoera-orriari dagokienez.
- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren aurrekontua: 5.853.980,00 euro, bai sarreraren egoera-orriari bai gastuen egoera-orriari dagokienez.
- Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren aurrekontua: 536.300,00 euro, bai sarreraren egoera-orriari bai gastuen egoera-orriari dagokienez.

5. artikulua. Tributuei dagozkien gastu fiskalak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko tributuei dagozkien gastu fiskalak 2.859.303.224,43 eurotan zenbatetsi dira.

II. TITULUA GEHIENEN ZORPETZE MAILA ETA BERMEAK EMATEKO MUGA

6. artikulua. Abalen muga.

- Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa: 1.408.741,00 euros.
- Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa: 1.829.400,00 euros.
- Ziur Fundazioa: 2.224.684,00 euros.
- Fundación Adinberri Fundazioa: 1.160.206,00 euros.
- MUBIL Fundazioa: 2.717.695,00 euros.
- BSTK Fundazioa: 1.475.000,00 euros.

Los recursos estimados de las citadas fundaciones ascienden al mismo importe que las dotaciones aprobadas para cada fundación.

Artículo 4. Presupuestos que acompañan a los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

1. Se acompaña el presupuesto de las Juntas Generales de Gipuzkoa que asciende tanto en el estado de ingresos como en el de gastos a 8.886.550,00 euros y, en cuanto a créditos de compromiso, a la cantidad total de 29.252,00 euros.

2. Se acompañan los presupuestos de los siguientes consorcios:

- Consorcio de Aguas de Gipuzkoa: cuyo presupuesto consolidado, tanto en el estado de ingresos como en el de gastos, asciende a 57.826.000,00 euros.
- Consorcio de Residuos de Gipuzkoa: cuyo presupuesto consolidado, tanto en el estado de ingresos como en el de gastos, asciende a 54.095.877,00 euros.
- Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa: cuyo presupuesto, tanto en el estado de ingresos como en el de gastos, asciende a 5.853.980,00 euros.

- Consorcio de Innovación Lingüística Badalab: cuyo presupuesto, tanto en el estado de ingresos como en el de gastos, asciende a 536.300,00 euros.

Artículo 5. Gastos fiscales que afectan a los tributos.

Los gastos fiscales que afectan a los tributos del Territorio Histórico de Gipuzkoa se estiman en 2.859.303.224,43 euros.

TÍTULO II DEL LÍMITE DE ENDEUDAMIENTO Y DE PRESTACIÓN DE GARANTÍAS

Artículo 6. Límite de los avales.



Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearen martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak 109.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Foru Aldundiak Bidegi S.A. emandako abalak ezin izango dira izan, 2026ko abenduaren 31n, 123.450.733,35 eurotik gorakoak.

7. artikulua. Foru Aldundiaren zorpetze muga.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren epe luzerako zorpetze eragiketen saldo bizia, eragiketak dokumentatzeko era zeinahi dela ere, ezin izango da izan, 2026ko abenduaren 31n, 363.070.000,00 eurotik gorakoa.

2. 2026. urtean zehar, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak egoki deritzen zorpetze eragiketak egin ahal izango ditu diruzaintzaren uanean uneko beharrei erantzuteko, edozein eratan dokumentatuta eta urtebeterako gehienez.

8. artikulua. Bidegi SA merkataritza foru sozietatearen zorpetze muga.

Bidegi SA sozietatearen epe luzerako zorpetze eragiketen saldo bizia, eragiketak dokumentatzeko era zeinahi dela ere, ezin izango da izan, 2026ko abenduaren 31n, 301.559.017,22 eurotik gorakoa.

III. TITULUA AURREKONTU KREDITUAK ETA HORIEN ALDAKETAK

9. artikulua. Foru Aldundiaren eta foru organismo autonomoen aurrekontu kredituak.

Gastuen egoera orriko kredituak erabiliko dira aurrekontuetan eta martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren III. tituluaren III. kapituluari eta foru arau honi jarraituz onetsitako aldaketetan baimendutako helburuak betetzeko.

10. artikulua. Kredituen lotura.

1. 2026ko ekitaldian, ordainketa kredituak mugatzaileak izango dira, martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak 51.2 artikuluan jasotakoaren arabera. Salbuespen bakarrak ondorengo zenbakietan ezarritakoak dira.

A efectos de lo dispuesto en el artículo 109.1 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, los avales concedidos a Bidegi S.A. por la Diputación Foral no podrán exceder a 31 de diciembre de 2026, de la cantidad de 123.450.733,35 euros.

Artículo 7. Límite de endeudamiento de la Diputación Foral.

1. El saldo vivo de las operaciones de endeudamiento a largo plazo de la Diputación Foral, cualquiera que sea la forma en que se documenten, no podrá exceder a 31 de diciembre de 2026, de la cantidad de 363.070.000,00 euros.

2. Durante el ejercicio 2026, la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas podrá realizar las operaciones de endeudamiento que estime necesarias para atender dificultades momentáneas de tesorería, en cualquiera de las formas en que se documenten y por un plazo no superior a un año.

Artículo 8. Límite de endeudamiento de la sociedad mercantil foral Bidegi S.A.

El saldo vivo de las operaciones de endeudamiento a largo plazo de Bidegi S.A., cualquiera que sea la forma en que se documenten, no podrá exceder a 31 de diciembre de 2026, de la cantidad de 301.559.017,22 euros.

TÍTULO III DE LOS CRÉDITOS PRESUPUESTARIOS Y DE SUS MODIFICACIONES

Artículo 9. Créditos presupuestarios de la Diputación Foral y de los organismos autónomos forales.

Los créditos del estado de gastos se destinarán al cumplimiento de las finalidades para las que fueron autorizados en los presupuestos y en las modificaciones aprobadas conforme a lo previsto en el capítulo III del título III de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, y en la presente norma foral.

Artículo 10. Vinculación de los créditos.

1. Durante el ejercicio 2026, los créditos de pago tendrán carácter limitativo conforme a lo previsto en el artículo 51.2 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, con las excepciones previstas en los números siguientes.



2. Mugatzaileak izango dira gastu egoeran duten desagregazio mailarekin honako hauek:

a) Foru arau honen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera zabalgarritzat hartutako kredituak, salbu honako hauek: 1. zenbakiaren a) letran jasotakoak, mugatzaileak izango baitira kapitulu mailan; eta b) eta c) letretan jasotakoak, kapitulu eta programa mailan izango baitira mugatzaileak.

b) Konpromiso kredituei dagozkien ordainketa kredituak, artikulua honen 3. zenbakiaren a) eta c) letretan jasotakoa eragotzi gabe.

c) Ekitaldiaren barruan onesten diren kreditu gehigarriak.

d) Aurreko ekitaldietatik txertatutako kredituak.

e) Foru organismo autonomoak, merkataritzako foru sozietateak eta foru fundazioak finantzatzearren Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuan izendatzen diren kredituak, eta haien zerbitzuak ordaintzeko erabiltzen diren kredituak.

f) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 20.3.c) artikuluan jasotakoaren arabera zuzenean eman daitezkeen dirulaguntzei dagozkien kredituak.

g) Finantzaketa lotuko gastuei dagozkien kredituak, artikulua honen 3.a) apartatuan jasotakoa eragotzi gabe.

h) Berdintasun-ekintza nagusiei esleitutako kredituak, langile-gastuei dagozkienak izan ezik.

i) Gobernantza Departamentutik partaidetza-prozesuak garatzeko jasotako kredituak.

j) Beren izaera, garrantzi edo xede bereziagatik, berariazko zehaztapen maila behar duten kredituak, Ogasun eta Finantza Departamentuak hala erabakitzen duenean.

3. Mugatzaileak izango dira kapitulu eta programa mailan:

a) Proiektu kofinantzatu bereko ordainketa kredituak.

b) II. kapituluan (ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak) sartutako kredituak.

2. Tendrán carácter limitativo con el nivel de desagregación con que aparezcan en el estado de gastos:

a) Los créditos declarados ampliables conforme a lo establecido en el artículo 11 de esta norma foral, con excepción de los previstos en la letra a) del número 1, que tendrán carácter limitativo a nivel de capítulo; y los previstos en las letras b) y c), que tendrán carácter limitativo a nivel de capítulo y programa.

b) Los créditos de pago correspondientes a créditos de compromiso, sin perjuicio de lo dispuesto en el número 3, letras a) y c) de este artículo.

c) Los créditos adicionales aprobados durante el ejercicio.

d) Los créditos incorporados de ejercicios anteriores.

e) Los créditos del presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa que tengan como destino la financiación de los organismos autónomos forales, de las sociedades mercantiles forales y de las fundaciones forales, así como los créditos destinados al pago de los servicios que efectúen.

f) Los créditos correspondientes a subvenciones que puedan concederse de forma directa, conforme a lo previsto en el artículo 20.3.c) de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

g) Los créditos correspondientes a gastos con financiación afectada, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 3.a) de este artículo.

h) Los créditos asignados a acciones principales de igualdad, a excepción de los correspondientes a gastos de personal.

i) Los créditos recibidos del Departamento de Gobernanza para el desarrollo de procesos participativos.

j) Aquellos créditos que por su especial carácter, relevancia o destino requieran un nivel de concreción específica, y así se determine por el Departamento de Hacienda y Finanzas.

3. Tendrán carácter limitativo a nivel de capítulo y programa:

a) Los créditos de pago correspondientes a un mismo proyecto cofinanciado.

b) Los créditos incluidos en el capítulo II –gastos corrientes en bienes y servicios–.



c) Dirulaguntza lerro bereko laguntzak finantzatzera bideratutako kredituak.

d) Bere izaera bereziagatik edo xedeagatik Ogasun eta Finantza Departamentuak erabakitzen dituen kredituak.

4. Konpromiso kredituak erregulatuko dira lotuak dituzten ordainketa kredituei titulu honetan aplikagarri zaizkien arauen arabera.

11. artikulua. Kreditu zabalgarriak.

1. Martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak 53. artikuluan xedatzen duenez, zabalgarritzat hartzen dira Foru Aldundiaren eta foru organismo autonomoen aurrekontuetan jasotzen diren kreditu hauek:

a) I. kapituluko gastuak (langileria gastuak), xedapen aplikagarrietan jasotakoaren arabera, eta foru arau honen V. tituluaren ezarritako mugekin.

b) Interesak, zenbateko nagusiaren amortizazioa, eta zorpetze gastuak ordaintzeko bideratutakoak.

c) Estatuari kupoa ordaintzeko, Euskal Autonomia Erkidegoari diru ekarpena egiteko, edo tributu itunduen bilketan parte hartzeagatik lurralde historikoko udalerriek jaso beharrekoa ordaintzeko izendatutako zenbatekoak.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiak abalatutako kreditu eragiketetan izan diren galerek eragindako diru betebeharrak ordaintzeko diren kredituak.

e) Batzar Nagusien eta foru organismo autonomoen aurrekontuak finantzatzeko bideratutako kredituak.

f) Finantzaketa lotuko gastuei dagozkien kredituak.

g) Langileei ordainsarien aurrerakinak emateko bideratutako kredituak.

h) Beste eskumen batzuk bereganatzearen ondorio diren kredituak.

i) Lurralde historikoko aurrekontu orokorren eranskin numerikoetan berariaz adierazten diren kredituak.

j) Proiektu estrategikoei dagozkien kredituak.

c) Los créditos destinados a financiar subvenciones de una misma línea subvencionable.

d) Aquellos créditos que por su especial carácter o destino determine el Departamento de Hacienda y Finanzas.

4. Los créditos de compromiso se regirán por las reglas del presente título aplicables a los créditos de pago a los que estén afectados.

Artículo 11. Créditos ampliables.

1. Conforme al artículo 53 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, se consideran ampliables los siguientes créditos incluidos en los presupuestos de la Diputación Foral y de los organismos autónomos forales:

a) Los gastos del capítulo I –gastos de personal– según lo establecido en las disposiciones aplicables y con las limitaciones establecidas en el título V de esta norma foral.

b) Los que se destinen al pago de intereses, amortización de principal y gastos derivados del endeudamiento.

c) Las cantidades consignadas para el pago del cupo al Estado, aportación a la Comunidad Autónoma del País Vasco y aportación a los municipios del territorio histórico por su participación en la recaudación de tributos concertados.

d) Los créditos destinados al pago de las obligaciones derivadas de quebrantos en operaciones de crédito avaladas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

e) Los créditos destinados a financiar el presupuesto de las Juntas Generales y el de los organismos autónomos forales.

f) Los créditos correspondientes a gastos con financiación afectada.

g) Los créditos destinados a la concesión de anticipos de remuneraciones al personal.

h) Los que sean consecuencia de la asunción de nuevas competencias.

i) Los que se señalen expresamente en los anexos numéricos de los presupuestos generales del territorio histórico.

j) Los créditos correspondientes a los proyectos estratégicos.



k) Onetsitako kreditu gehigarriak, seigarren xedapen gehigarriaren 4. zenbakian xedatutakoaren arabera.

2. Zainketak eta Gizarte Politiketako Departamentuak aldizkako prestazio ekonomikoen programaren barruan familiei egiten dizkien transferentziak zabalgarriak dira, prestazio mota bakoitzaren berariazko araudiaren aplikaziotik eratorritako diru beharren arabera.

12. artikulua. Konpromiso kredituak sortu eta birbanatzeko gehieneko muga.

1. Diputatuen Kontseiluak, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta ukitutako departamentuaren edo foru organismo autonomoen ekimenez, konpromiso kreditu berriak onetsi ditzake, betiere haiek ez badira aplikatzen 4 ekitalditan baino gehiagotan, eta haien zenbateko osoak ez badu gainditzen foru arau honetan onetsitako konpromiso kredituen %10, foru arau honen 17. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

2. Diputatuen Kontseiluak erabaki dezake, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik eta eragindako departamentuaren edo foru organismo autonomoaren ekimenez, konpromiso kredituen artean transferentziak egitea edo horien urteko zenbatekoak birbanatzea 4 urteko epe mugarekin, betiere haien zenbateko osoa ez bada handiagoa foru arau honetan onetsitako konpromiso kredituen % 10 baino, foru arau honen 17. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

3. Pertsona fisikoek edo juridikoek urte anitzeko gastuak finantzatzeko egiten dituzten ekarpenak ez dira konputatuko aurreko zenbakietan jarritako muga ondorioetarako.

13. artikulua. Kreditu gaikuntzak.

1. Martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak 58.8 artikuluan jasotakoaren arabera, gastu aurrekontuan gaikuntzak egin ahal izango dira beste sarrera batzuen kargura, zerga itunduak barne, betiere sarrera aurrekontuaren exekuzioaren arabera aurreikusi badaiteke ekitaldiaren amaieran hasierako aurreikuspenak gaindituko direla. Gaikuntza horien helburua izango da:

a) Estatuari kupoa ordaintzea, Euskal Autonomia Erkidegoari diru ekarpena egitea edo tributu itunduen bilketan parte hartzeagatik

k) Los créditos adicionales aprobados en virtud de la disposición adicional sexta, número 4.

2. Las transferencias a familias del programa de prestaciones económicas periódicas del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales son ampliables en función de las necesidades económicas derivadas de la aplicación de la normativa específica de cada tipo de prestaciones.

Artículo 12. Límite máximo de creación y redistribución de créditos de compromiso.

1. El Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, y a iniciativa del departamento afectado o de los organismos autónomos forales, podrá aprobar nuevos créditos de compromiso, siempre que el número de ejercicios a que se apliquen no sea superior a 4 años, y siempre que su importe total no sobrepase el 10% de los créditos de compromiso aprobados en la presente norma foral, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 17 de esta norma foral.

2. El Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, y a iniciativa del departamento afectado o de los organismos autónomos forales, podrá aprobar transferencias entre créditos de compromiso, así como la redistribución de sus anualidades con el límite temporal de 4 años, siempre que su importe total no sobrepase el 10% de los créditos de compromiso aprobados en la presente norma foral sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 17 de esta norma foral.

3. Las aportaciones de las personas físicas o jurídicas para financiar gastos de carácter plurianual no computarán a efectos de las limitaciones establecidas en los números anteriores.

Artículo 13. Habilitaciones de crédito.

1. De conformidad con lo previsto en el artículo 58.8 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, se podrán efectuar habilitaciones en el presupuesto de gastos con cargo a otros ingresos, incluidos los tributos concertados, siempre que la ejecución del presupuesto de ingresos permita prever que, a final del ejercicio, las previsiones iniciales consignadas van a ser superadas. El destino de estas habilitaciones será:

a) El pago del cupo al Estado, la aportación a la Comunidad Autónoma del País Vasco o la aportación a los municipios del Territorio Histórico



Gipuzkoako udalerriek jaso beharreko ekarpena ematea.

b) Interesak, zenbateko nagusiaren amortizazioa edo zorpetzeak eragindako bestelako gastuak ordaintzea.

c) Ohiz kanpoko izaerako giza gastua.

2. Gaikuntza horiek ez dira konputatuko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren 58.11 artikuluan jasotako mugaren ondorioetarako.

3. Finantzaketa lotuko proiektuei eta proiektu estrategikoei lotutako funtsak kudeatzeko kreditu gaikuntzak foru arau honen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo dira.

14. artikulua. Kreditu txertaketak.

Martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren 59.2 artikuluan aurreikusitako salbuespenarekin bat etorriz, 2026ko ekitaldian kreditu-gerakinak ere sartu ahal izango dira, edozein gauzatze-fasetan daudela ere, honako hauei dagokienez:

- Finantzaketa lotuko proiektuak.
- Proiektu estrategikoak.
- IZFEren zerbitzuetara eta inbertsioetara bideratutako kapital-eragiketak.

IV. TITULUA AURREKONTUAREN KUDEAKETA

15. artikulua. Dirulaguntzak.

Diputatu nagusiak eta foru diputatuek martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 20.3.c) artikuluan aipatzen diren laguntzak eman ditzakete, nork bere departamentuko aurrekontuaren kargura, betiere 15.000,00 euroko zenbatekoa gainditu gabe.

16. artikulua. Finantzaketa lotuko proiektuak.

Osorik edo zati batean sektore publikoko erakundeek edo pertsona fisiko edo juridikoek finantzatutako gastu-proiektuek, foru-aldundiarekin edo haren foru-erakunde autonomoekin beren izaeragatik haien xedeetan edo helburuetan sartuta dauden gastuak finantzatzeko badira, behar bezala identifikatuta egon beharko dute hasierako aurrekontuan edo kredituak aldatzeko espedienteetan, eta berariaz jaso beharko dituzte haien finantzaketa-iturriak.

de Gipuzkoa por su participación en la recaudación de tributos concertados.

b) El pago de intereses, amortización de principal u otros gastos derivados del endeudamiento.

c) Gasto social de carácter excepcional.

2. Estas habilitaciones no computarán a efectos del límite previsto en el artículo 58.11 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo.

3. Las habilitaciones de crédito para la gestión de los fondos vinculados a los proyectos con financiación afectada y a los proyectos estratégicos se realizarán conforme a lo dispuesto en el artículo 17 de esta norma foral.

Artículo 14. Incorporaciones de crédito.

De conformidad con la excepción prevista en el artículo 59.2 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, podrán incorporarse además al ejercicio 2026, remanentes de crédito, cualquiera que sea la fase de ejecución en que se encuentren, correspondientes a:

- Proyectos con financiación afectada.
- Proyectos estratégicos.
- Operaciones de capital destinadas a servicios e inversiones de IZFE.

TÍTULO IV DE LA GESTIÓN PRESUPUESTARIA

Artículo 15. Subvenciones.

La diputada general y los y las diputadas forales podrán conceder las subvenciones a que se refiere el artículo 20.3.c) de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, con cargo al presupuesto de su departamento, siempre que su importe no sea superior a 15.000,00 euros.

Artículo 16. Proyectos con financiación afectada.

Los proyectos de gasto financiados, total o parcialmente, por entidades del sector público o por personas físicas o jurídicas, para financiar con la Diputación Foral o sus organismos autónomos forales gastos que, por su naturaleza, están comprendidos en los fines u objetivos de los mismos, deberán estar debidamente identificados en el presupuesto inicial o en los expedientes de modificación de créditos, debiendo constar de modo expreso sus fuentes de financiación.



Kredituen finantzaketari lotutako baliabideen aurreikuspena hasieran aurreikusatikoa baino txikiagoa denean, aurrekontuko gastu egoeretan kreditu atxikipenak egitea erabaki dezake Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusiak.

17. artikulua. Finantzaketa lotuko proiektuei eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektu estrategikoei lotutako funtsen kudeaketa.

1. Finantzaketa lotuko proiektuak eta proiektu estrategikoak gauzatzeko 2026ko ekitaldian lor daitezkeen diru-sarrera handiagoek dagozkien ordainketa-kredituak eta, hala badagokio, konpromiso-kredituak sortuko dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiko Administrazioaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Administrazioaren aurrekontuko gastuen egoera-orrian.

2. Diru-sarrera horiek lehenengo paragrafoan aipatzen diren proiektuei lotutako jardueren finantzaketa espezifikoari atxikita geratuko dira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-sarreraren egoera-orrian sartuko dira.

3. Kreditu gaikuntzen bidez sortutako kredituak ez dute konputatuko, martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren 58.11 artikuluan jasotako mugaren ondorioetarako.

4. Kredituak Ogasun eta Finantza Departamentuak antolatuko ditu, funtsen lurralde-banaketan eskumena duten Europako, Estatuko edo autonomia-erkidegoko organoen hasierako akordioak edo foru-aldundiak edo haren erakunde autonomoek jarduketa bateratuak egiteko sinatutako erakundearteko hitzarmenak jasotzen diren unetik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta haren erakunde autonomoei dagokien zenbatekoan, eta ez zaie aplikatuko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren 58.3 artikuluan aurreikusatikoa.

5. Behin kreditua sortuta, erabilgarritzat joko da, bai gastu baimen eta xedapenak, bai haiek sorrarazi dituzten negozio juridikoak izapidetzeko. Ogasun eta Finantza Departamentuak behin betiko erabakiak, hitzarmenak, ebazpenak edo ekarpenak egiteko konpromiso irmoak kasu bakoitzean egiaztatzeko tresna juridikoak sinatzea edo onestea etengo duen baldintzaren pean jarri ahal izango du haien eraginkortasuna.

La directora general de Finanzas y Presupuestos podrá acordar las correspondientes retenciones de crédito en los estados de gastos del presupuesto, cuando la previsión de los recursos afectados a su financiación sea inferior a la inicialmente prevista.

Artículo 17. Gestión de los fondos vinculados a los proyectos con financiación afectada y a los proyectos estratégicos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

1. Los mayores ingresos que puedan obtenerse en el ejercicio 2026 para la ejecución de los proyectos con financiación afectada así como para proyectos estratégicos, generarán los correspondientes créditos de pago y, en su caso, de compromiso que procedan en el estado de gastos del presupuesto de la Administración de la Diputación Foral y de la Administración Institucional del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Dichos ingresos quedarán afectos a la financiación específica de las actuaciones vinculadas a los proyectos a los que se refiere el apartado uno, y se integrarán en el estado de ingresos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3. Los créditos generados mediante habilitaciones de crédito no computarán a efectos del límite previsto en el artículo 58.11 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo.

4. Los créditos se instrumentarán por el Departamento de Hacienda y Finanzas desde el momento en que consten los acuerdos iniciales de los órganos europeos, estatales o autonómicos competentes de la distribución territorial de los fondos, o los correspondientes convenios interinstitucionales suscritos por la Diputación Foral o sus organismos autónomos para la realización de actuaciones conjuntas, en la cuantía que haya de corresponder a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a sus organismos autónomos, sin que les sea de aplicación lo previsto en el artículo 58.3 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo.

5. Una vez generado el crédito se entenderá disponible para tramitar las autorizaciones y disposiciones de gasto y los negocios jurídicos de los que éstas traigan causa. El Departamento de Hacienda y Finanzas podrá someter su eficacia a la condición suspensiva de la suscripción o la aprobación de los acuerdos definitivos, los convenios, las resoluciones o los instrumentos jurídicos por medio de los cuales se verifiquen en cada caso los compromisos firmes de aportación.



6. Ogasun eta Finantza Departamentuak soberakinak deklaratu ahal izango ditu baldin eta, hasiera batean, 2026ko ekitaldirako onetsitako aurrekontuan sartuta egonik, funts horiekin finantzatzeko jarduketa eta proiektuekin bat badatoz, foru administrazioari dagokion zatian. Soberazko kreditu horiek beste ordainketa baliabide batzuen zuzkiduren gabeziei erantzuteko aplikatu ahal izango dira, eta ez zaie aplikatuko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren 58.4 artikuluan eta 56.1 artikuluan b), c) eta d) letretan xedatutakoa.

7. Hasierako aurrekontuan sartutako finantzaketa lotuko proiektuei eta proiektu estrategikoei lotutako ordainketa-kredituak eta ekitaldian zehar sortzen direnak zabalgarritzat joko dira, martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren 53. artikuluan xedatutakoaren arabera.

8. Diputatuen Kontseiluak, kreditu gehigarriak onetsiz eta diruzaintzako gerakinaren kargura, ordainketa kreditu horiek gehitu ahal izango ditu ekitaldian zehar, kudeaketako aurrekontu propioaren %5eko mugaraino.

9. Hasierako aurrekontuan sartutako diruzaintzako gerakina, bai eta finantzaketa lotuko proiektuei eta proiektu estrategikoei lotutako kredituak finantzatzeko erabiltzen dena ere, jarduketa eta proiektu horiek finantzatzeko baino ezin izango dira erabili.

10. Finantzaketa lotuko proiektuei eta proiektu estrategikoei lotutako konpromiso kredituak sortu eta transferitzea ez dago foru arau honen 12. artikuluko muga kuantitatibo eta denborazkoen menpe.

18. artikulua. Gastua gauzatzeko muga.

1. Ogasun eta Finantza Departamentuak agindu ahal izango du kredituak atxikitzea edo bestelako prebentzio neurriak hartzea, gastuaren kontrola bermatzearren.

Aipatutako kredituak liberatzeko tramitazioa haien atxikipenerako berbera izango da.

2. Ogasun eta Finantza Departamentuak soberazko kredituak bideratu ditzake nahitaezkoak diren gastuen aurrekontu beharrak betetzeko, gastu horien benetako exekuzioa hasierako aurreikuspenarekiko defizitariora denean. Ondorio horietarako, ez dira aplikagarriak izango martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak 56.1 artikuluan c) eta d) letretan jasotzen dituen mugak.

6. El Departamento de Hacienda y Finanzas podrá declarar excedentarios aquellos créditos que, inicialmente incluidos en el presupuesto aprobado para el ejercicio 2026, se correspondan con actuaciones y proyectos financiados con estos fondos, en la parte correspondiente a lo financiado por la administración foral. Estos créditos excedentarios podrán aplicarse a atender las insuficiencias en las dotaciones de otros créditos de pago, sin que les sea de aplicación lo dispuesto en el artículo 58.4 y en las letras b) c) y d) del artículo 56.1 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo.

7. Los créditos de pago vinculados a los proyectos con financiación afectada y a los proyectos estratégicos incluidos en el presupuesto inicial, así como los que se creen a lo largo del ejercicio, tendrán la calificación de ampliables conforme a lo dispuesto en el artículo 53 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo.

8. El Consejo de Gobierno Foral podrá aumentar, mediante la aprobación de créditos adicionales y con cargo al remanente de tesorería, estos créditos de pago a lo largo del ejercicio hasta el límite del 5% del presupuesto propio de gestión.

9. El remanente de tesorería incluido en el presupuesto inicial, así como el utilizado para la financiación de créditos vinculados a los proyectos con financiación afectada y a los proyectos estratégicos, solo podrán emplearse en la financiación de dichas actuaciones y proyectos.

10. La creación y transferencia de créditos de compromiso vinculados a los proyectos con financiación afectada y a los proyectos estratégicos no están sujetas a los límites cuantitativos y temporales del artículo 12 de la presente norma foral.

Artículo 18. Limitación a la ejecución del gasto.

1. El Departamento de Hacienda y Finanzas, podrá ordenar la retención de créditos u otras medidas preventivas que garanticen la contención del gasto.

La liberación de los créditos citados requerirá igual tramitación que la prevista para su retención.

2. El Departamento de Hacienda y Finanzas podrá destinar créditos excedentarios a cubrir necesidades presupuestarias correspondientes a gastos de obligado cumplimiento, cuya ejecución real es deficitaria respecto a la previsión inicial. A tal efecto no serán de aplicación las restricciones previstas en las letras c) y d) del artículo 56.1 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo.



3. Proiektuen finantzaketa exekuzio erritmorra egokitu beharragatik konpromiso kredituak onesten badira, hasieran aurreikusitako ordainketa kredituak atxikitzeke agindu dezake Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusiak.

19. artikulua. Egindako gastua udalerrika banatzea.

1. Gastu partiden aurreikuspenak udalerrika banatu badira 2026ko aurrekontuan, haien exekuzioa ere udalerrika banatuta agertuko da.

2. Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusiak udalerrika banatzeko modukotzat har ditzake 2026ko aurrekontuan udalerrika banatutakoen pareko bestelako gastu partidak.

20. artikulua. Batzar Nagusien eta foru sektore publikoko gainerako entitateen aldeko transferentziak.

1. Foru Aldundiaren aurrekontuan Batzar Nagusien aurrekontua finantzatzeko izendatzen diren kredituak Batzar Nagusietako Mahaia eskatu ahala transferituko dira.

2. Foru sektore publikoko entitateei zuzendutako transferentziak haien behar finantzarioen arabera egingo dira, aurrekontuegonkortasunaren eta finantza jasangarritasunaren arloko lege-esparrua betetzen dela kontuan hartuta.

V. TITULUA LANGILERIAREN ETA PASIBOEN KREDITUAK

I. KAPITULUA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA FORU ORGANISMO AUTONOMOAK

21. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiko kideen eta goi kargudunen ordainsariak.

Diputatu nagusiaren, foru diputatuen eta zuzendari nagusien 2026ko ordainsariak 2025eko abenduaren 31n indarrean daudenak izango dira, betiere Foru Administrazioako langileen ordainsarietarako erabakitzen den eran eguneratuta.

22. artikulua. Langileen ordainsariak.

Gipuzkoako Foru Aldundian eta foru organismo autonomoetan jarduten duten langileen 2026ko

3. En el supuesto de que se aprueben créditos de compromiso como consecuencia de la necesidad de adecuar la financiación de los proyectos a su ritmo de ejecución, la directora general de Finanzas y Presupuestos podrá ordenar la retención de los créditos de pago previstos inicialmente.

Artículo 19. Municipalización del gasto realizado.

1. Se municipalizará la ejecución de las partidas de gasto cuyas previsiones hayan sido distribuidas por municipios en el presupuesto 2026.

2. La directora general de Finanzas y Presupuestos podrá calificar como municipalizables otras partidas de gastos de naturaleza similar a las distribuidas por municipios en el presupuesto 2026.

Artículo 20. Transferencias a las Juntas Generales y al resto de entidades del sector público foral.

1. Los créditos del presupuesto de la Diputación Foral destinados a financiar el presupuesto de las Juntas Generales se transferirán a medida que sean demandados por la Mesa de las Juntas Generales.

2. Las transferencias a las entidades del sector público foral se realizarán de acuerdo a sus necesidades financieras observando el cumplimiento del marco legislativo en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

TÍTULO V DE LOS CRÉDITOS DE PERSONAL Y DE PASIVOS

CAPÍTULO I DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y ORGANISMOS AUTÓNOMOS FORALES

Artículo 21. Retribuciones de las y los miembros y altos cargos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Las retribuciones de la diputada general, de los diputados o diputadas forales y de los directores o directoras generales serán en 2026 las vigentes al 31 de diciembre de 2025, actualizadas en los mismos términos que resulte para el conjunto de las retribuciones del personal de la Administración Foral.

Artículo 22. Retribuciones del personal.

Las retribuciones íntegras del personal al servicio de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de los organismos



ordainsari osoak 2025eko abenduaren 31n indarrean daudenak izango dira, betiere kasu bakoitzean aplikagarria den araudiari jarraituz eguneratuta.

23. artikulua. Aurrekontu plantillaren osaera.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorretako langileei buruzko eranskinean funtzionario edo laboralen arabera sailkatuta ageri diren plaza osatzen dituzte Foru Administrazioa eta foru organismo autonomoetako 2026ko aurrekontu plantillak.

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2026ko ekitaldirako aurrekontu orokorretan onesten dira aipatutako eranskinean ageri diren plaza guztiei dagozkien kredituak, lanpostuei atxikiak, urtea amaitu arte beharrezko irizten den diru kopuruarekin.

Era berean, onetsita geratu dira lanpostu zerrendari lotu gabeko lanpostuei dagozkien kredituak, urtea amaitu arte beharrezko deritzon zenbatekoa atxikita.

24. artikulua. I. kapitulua gehitzeko mugak.

1. 2026ko ekitaldian, plantilla handitu edo aldatzeko espedienteak soil-soilik onetsiko dira baldin eta haietatik ondorioztatzen den gastu gehikuntza beste lanpostu batzuen kredituak murriztuz konpentsatzen bada.

2. Aurrekoa gorabehera, plantilla handitzeko espedienteak onetsi ahal izango dira, aurrekontu-zuzkidura duten aldi baterako programetako lanpostuen kreditua murriztuta, baldin eta haien jarduerak egiturazkoak bihurtu badira, plantillan lanpostu berdinak sortzeko.

1. zenbakian jarritako muga ez da aplikatuko honako hauek direla-eta plazak edota lanpostuak sortu edo aldatzen direnean, betiere aldaketa horiek behar den finantzaketa badute: eskumen berriak hartzea, organo edo zerbitzu berriak sortzea, kanpora eraman edo kontratatzen diren zerbitzuak zuzenean ematea, arrazionalizazio programak aplikatzea edo lanpostuak baloratzea.

3. Aurrekontu-plantilla handitzeko edo aldatzeko proposamenek Gobernantza Departamentuaren aldeko txostena beharko dute aldez aurretik.

autónomos forales serán en 2026 las vigentes al 31 de diciembre de 2025, actualizadas de acuerdo con la normativa que en cada caso resulte de aplicación.

Artículo 23. Composición de la plantilla presupuestaria.

1. Componen las plantillas presupuestarias de la Administración Foral y de los organismos autónomos forales para el ejercicio 2026 las plazas que, clasificadas por grupos funcionariales o laborales, se relacionan en el anexo de personal de los presupuestos generales del territorio histórico.

2. En los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio 2026 se aprueban los créditos con los que están dotadas todas las plazas que figuran en el anexo citado, asociadas a los puestos de trabajo, con el importe que se considera necesario hasta fin de año.

Asimismo, se aprueban los créditos con los que están dotados los puestos no asociados a la relación de puestos de trabajo, con el importe que se considera necesario hasta fin de año.

Artículo 24. Limitaciones al aumento del capítulo I.

1. Durante el ejercicio 2026, sólo se podrán aprobar expedientes de ampliación o modificación de la plantilla cuando el incremento del gasto que se derive de los mismos se compense mediante la reducción del crédito con que estén dotados otros puestos.

2. No obstante lo anterior, se podrán aprobar expedientes de ampliación de la plantilla mediante la reducción del crédito de puestos de programas de carácter temporal, dotados presupuestariamente, cuyas actividades hayan devenido estructurales, para la creación de puestos idénticos en la plantilla.

La limitación establecida en el número 1 tampoco será de aplicación en las creaciones o modificaciones de plazas y/o puestos como consecuencia de la asunción de nuevas competencias, la creación de nuevos órganos y servicios, la asunción directa de servicios externalizados, la aplicación de programas de racionalización, o la valoración de los puestos de trabajo, siempre y cuando las diferentes modificaciones cuenten con la financiación correspondiente.

3. Las propuestas de ampliación o modificación de la plantilla presupuestaria requerirán informe favorable previo del Departamento de Gobernanza.



25. artikulua. Kreditu soberakinak.

Gobernantza Departamentuak I. kapituluko kredituen soberakin aurreikusgarriak bideratu ahal izango ditu soberakinari dagozkion lanpostuak ez diren beste batzuk finantzatzera eta izendapenak edo aldi baterako kontratuak egitera, indarrean dagoen araudiaren arabera.

26. artikulua. Enplegu publikoko eskaintza eta pertsonal beharrak aldi baterako betetzea.

1. Gobernantza Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Foru Aldundiak bere erakundeko enplegu eskaintza publikoa edo publikoak onetsi ahal izango ditu, baita foru organismo autonomoetakoak ere, indarrean dagoen araudiari jarraituz.

2. Araudiak ezartzen dituen kasuetan baino ezingo dira aldi baterako langileak kontratatatu edo bitarteko funtzionarioak izendatu.

27. artikulua. Pasiboen kredituei aplikagarri zaizen araubidea.

Honako xedapen hauek kontuan hartuta eman eta eguneratuko dira pentsioak eta izaera pasiboko bestelako asignazio eta hartzekoak: ekainaren 10eko 6/1986 Foru Araua, Gipuzkoako Foru eta Tokiko Administrazioako Eskubide Pasibo Osagarrietarako Zerbitzua Kudeatzeko Organoa desegiteari eta Elkarkidetzan sartzeari buruzkoa; graziazko pentsioen araudia; Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bertako langileen arteko lan harremanen arau erregulatzaileak, eta Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea.

II. KAPITULUA FORU SEKTORE PUBLIKOKO GAINERAKO ENTITATEAK

28. artikulua. Ordainsariak.

1. Foru sektore publikoko entitateetako zuzendari nagusien, gerenteen eta haiekin parekatutakoen 2026ko ordainsariak 2025eko abenduaren 31n indarrean daudenak izango dira, betiere Foru Administrazioako langileen ordainsarietarako erabakitzen den eran eguneratuta.

2. Foru sektore publikoko entitateetako langileen 2026ko ordainsariak 2025eko abenduaren 31n indarrean daudenak izango dira, betiere Foru Administrazioako langileen

Artículo 25. Excedentes de crédito.

El Departamento de Gobernanza podrá destinar los excedentes previsibles de créditos del capítulo I, a financiar puestos diferentes de aquéllos de los que proceda el excedente y a realizar nombramientos o contratos temporales de conformidad a la normativa vigente.

Artículo 26. Oferta de empleo público y cobertura temporal de necesidades de personal.

1. A propuesta de la diputada foral del Departamento de Gobernanza, la Diputación Foral podrá aprobar su oferta o sus ofertas públicas de empleo, así como la de sus organismos autónomos forales, de conformidad a la normativa vigente.

2. La contratación de personal temporal y el nombramiento de personal funcionario interino se podrá realizar en los casos previstos en la normativa vigente.

Artículo 27. Régimen aplicable a los créditos de pasivos.

Las pensiones y otras asignaciones y haberes de carácter pasivo se concederán y actualizarán con arreglo a lo dispuesto en la Norma Foral 6/1986, de 10 de junio, sobre disolución del Órgano de Gestión del Servicio de Derechos Pasivos Complementarios de la Administración Local y Foral de Gipuzkoa e Integración en Elkarkidetzta; en la normativa de pensiones gratificables; en las normas reguladoras de la relación de trabajo entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y su personal; y en la Ley de Presupuestos Generales del Estado.

CAPÍTULO II RESTO DE LAS ENTIDADES DEL SECTOR PÚBLICO FORAL

Artículo 28. Retribuciones.

1. Las retribuciones íntegras de los directores o directoras generales, gerentes y asimilados, de las entidades del sector público foral serán en 2026 las vigentes al 31 de diciembre de 2025, actualizadas en los mismos términos que resulte para el conjunto de las retribuciones del personal de la Administración Foral.

2. Las retribuciones íntegras del personal de las entidades del sector público foral serán en 2026 las vigentes al 31 de diciembre de 2025, actualizadas en los mismos términos que resulte para el conjunto



ordainsarietarako erabakitzen den eran eguneratuta.

29. artikulua. Langileria gastuak gehitzeko mugak.

1. 2026ko ekitaldian, foru-sektore publikoko entitateek plantilla gehikuntzak edo aldaketak onetsi ahal izango dituzte, indarrean dagoen araudian ezarritako muga eta eskakizunekin, soil-soilik, baldin eta haiek dakarten gastu gehikuntza beste plaza batzuetarako aurreikusitako gastua murriztuz konpentsatzen bada. Beraz, edozein lanpostu sortzeko, ezinbestekoa izango da zuzkidura ekonomiko berdineko edo handiagoko beste lanpostu batzuk amortizatzea aldi berean.

Salbuespen gisa, zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten edo aplikatu beharreko araudiak lehenetsunezko zat jotzen dituen jarduerak egiten dituzten foru-sektore publikoko entitateek erretiro partziala hartzeko errelebo-kontratuak formalizatu ahal izango dituzte, zeinetan errelebista- eta errelebatu-kontratuak formalizatzekoak kostua handitzea ekarriko baitu, errelebatutako langilearen kontratuari dagokion kostuarekin alderatuta, mantendu behar diren aldi osorako, langileak erabateko erretiroa hartu arte. Horretarako aurretik zerbitzua emateko edo jarduera gauzatzeko kostu-gehikuntzaren beharra justifikatu beharko da, eta gehikuntza hori langileen gastua aurrezteko beste neurri batzuekin konpentsatu beharko da, guztizko gastua handitu ez dadin.

2. Dena den, artikulua honen 1. zenbakian ezarritako gastua ez handitzeko araubide orokorrari ondorengo salbuespen hauek ezarri zaizkio:

a) Sektorre publikoan harreman mugagabea duten langile berriak sartzea, enplegu publikoko eskaintza baten bidez.

b) Zerbitzu berriak abian jartzeko eta funtzionatzeko behar diren lanpostuak sortzea, baldin eta estatuko, autonomia erkidegoko edo foru araudi bidez ezarrita badaude.

30. artikulua. Langileak kontratatzea.

Aurreko artikuluan aipatutako entitateek langile berriak kontratatu ahal izango dituzte, indarrean dagoen araudian ezarritako muga eta baldintzekin, aurretik Foru Aldundiak baimenduta.

de las retribuciones del personal de la Administración Foral.

Artículo 29. Limitaciones al aumento de gastos de personal.

1. Durante el ejercicio 2026, las entidades del sector público foral sólo podrán aprobar ampliaciones o modificaciones de plantilla con las limitaciones y requisitos establecidos en la normativa vigente, cuando el incremento del gasto que se derive de las mismas se compense mediante la reducción del gasto previsto para otros puestos. En consecuencia, cualquier creación de puestos requerirá la simultánea amortización de otras plazas de igual o superior dotación económica.

Como excepción, las entidades del sector público foral que gestionen servicios públicos o realicen actividades consideradas prioritarias por la normativa que resulte de aplicación podrán formalizar contratos de relevo para el acceso a la jubilación parcial en los que la formalización de los contratos de persona relevista y relevada supongan un incremento de coste en relación con el que correspondería al contrato de la persona relevada para todo el periodo en el que deban mantenerse, hasta acceder esta a la jubilación total, previa justificación de la necesidad del incremento de coste para la adecuada prestación del servicio o realización de la actividad y siempre que el citado incremento se compense con otras medidas de ahorro de gasto de personal de forma que no se incremente su gasto total.

2. No obstante, se establecen las siguientes excepciones al régimen general de no incrementar el gasto establecido en el número 1 de este artículo:

a) La incorporación a través de una oferta de empleo público de personal de nuevo ingreso con una relación indefinida en el sector público.

b) La creación de puestos necesarios para la puesta en marcha y funcionamiento de nuevos servicios cuyo establecimiento venga impuesto en virtud de una norma estatal, autonómica o foral.

Artículo 30. Contratación de personal.

Las entidades a las que se refiere el artículo anterior podrán proceder a la contratación de nuevo personal previa autorización de la Diputación Foral con las limitaciones y requisitos establecidos en la normativa vigente.



VI. TITULUA GIPUZKOAKO UDALERRIEN FINANTZAKETA

31. artikulua. Udalak Finantzatzeko Foru Funtsaren 2026rako zuzkidura.

1. Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren (UFFF) zuzkidura 721.207.240,00 eurokoa izango da 2026rako, Ekonomia Itunaren baliabideetan parte hartzeagatik, Udal Finantzaketarako Foru Funtsa arautzen duen azaroaren 23ko 15/1994 Foru Arauaren 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2. Aurreko zenbakian adierazitako zenbatekoaren % 99,85 Gipuzkoako udalerrien artean banatuko da, azaroaren 23ko 15/1994 Foru Arauak xedatutakoarekin bat etorritz.

3. Gainerako % 0,15a Euskal Udalen Elkarte (Eudel) finantzatzeko erabiliko da.

4. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak udalerrien artean banatuko du artikuluko honetan aurreikusitako zenbatekoa, azaroaren 23ko 15/1994 Foru Arauaren 3. artikuluko ezarritako irizpideak jarraituz.

32. artikulua. Partaidetza itundu gabeko tributuetan.

Foru Aldundiak Ekonomia Itunaren 51. artikuluan jasotakoaren arabera banatuko die Gipuzkoako udalerriei itundu gabeko zergetan duten partaidetza.

33. artikulua. Udal zergen bilketa.

1. Udal-mugarte bakoitzean likidatu beharreko udal-tributuetatik lortzen den diru-bilketa likidoa zuzenean egotziko zaio dagokion udalerriari.

2. Udalerrri bakoitzari borondatezko epean zein epe exekutiboan esleitutako zerga-bilketa likidotik honako hauek kenduko dira: Foru Aldundiak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren bilketan emandako zerbitzuaren kostua, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren udal-, probintzia- eta estatu-kuotak, eta udalen kontura bil litezkeen zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk.

TÍTULO VI DE LA FINANCIACIÓN DE LOS MUNICIPIOS DEL TERRITORIO HISTÓRICO

Artículo 31. Dotación del Fondo Foral de Financiación Municipal para 2026.

1. La dotación del Fondo Foral de Financiación Municipal (FFFM) se fija para el 2026 en la cantidad de 721.207.240,00 euros, en concepto de participación en los recursos del Concierto Económico de conformidad con lo previsto en el artículo 2 de la Norma Foral 15/1994, de 23 de noviembre, reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal.

2. El 99,85 % del importe mencionado en el número anterior se distribuirá entre los municipios del territorio histórico de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 15/1994, de 23 de noviembre.

3. El 0,15 % restante se destinará a la financiación específica de la Asociación de Municipios Vascos (Eudel).

4. La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas distribuirá entre los municipios la cantidad prevista en este artículo, aplicando los criterios establecidos en el artículo 3 de la Norma Foral 15/1994, de 23 de noviembre.

Artículo 32. Participación en tributos no concertados.

La participación en tributos no concertados se distribuirá por la Diputación Foral entre los municipios guipuzcoanos de acuerdo con lo previsto en el artículo 51 del vigente Concierto Económico.

Artículo 33. Recaudación de los tributos locales.

1. La recaudación líquida que se obtenga de los tributos propios municipales, objeto de liquidación en cada término municipal, se atribuirá directamente al municipio correspondiente.

2. De la recaudación líquida atribuida a cada municipio tanto en período voluntario como ejecutivo, se deducirá el coste del servicio prestado por la Diputación Foral en la recaudación del Impuesto de Bienes Inmuebles, de las cuotas municipales, provinciales y estatales del Impuesto sobre Actividades Económicas, y de otros ingresos de derecho público que pudiera recaudar por cuenta de los ayuntamientos.



3. 2026ko ekitaldian, dagokion hitzarmenaren arabera zerga propioen borondatezko bilketa Foru Aldundiari eskuordetu dioten udalek konturako aurrerakinak jasotzeko eskubidea izango dute; aurrerakin horiek ez dute interesik sortuko, Foru Aldundiari ordaindu beharreko zerbitzuaren kostuan sartuta daudela iritzita.

Konturako ordainketak izaera honetako aldizkako entregan bidez egingo dira:

a) Hilero, 2.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerriei.

b) Bi hilean behin, 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriei.

Ordainketa horiek urteko lehenengo 6 hilabeteetan bakarrik egingo dira Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kasuan, eta urte osoan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren udal-arloko kuoten kasuan.

Aurrerakin horien zenbatekoa, funtsean, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren bidez eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren udal-kuotaren bidez 2025ean borondatez bildutako zenbatekoen arabera zehaztuko da. Baldin badagokio, zuzenduko da zerga-oinarrien, karga-tasen edo tarifen aldaketaren ondoriozko aldaketekin. Diru-bilketaren behin betiko zifrak ezagutu ondoren, dagokion likidazioa egingo da.

VII. TITULUA BATZAR NAGUSIEI INFORMAZIOA EMATEA

34. artikulua. Foru Aldundiak aldizka eman beharreko informazioa.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak, hiru hilean behin, informazioa eman behar die Batzar Nagusiei aurrekontuaren exekuzioari buruz eta Foru Administrazioaren finantza egoerari buruz, txosten hauek direla medio:

a) Kreditu aldaketen laburpena.

b) Aurrekontuen exekuzio mailaren laburpena, sarrera eta gastuen egoerei dagokienez.

c) Urte anitzeko gastu konpromisoen exekuzioaren laburpena.

d) Sarreraren eta gastuen balantzea partidaka, exekuzio faseen arabera.

e) Foru zorpetzearen egoera.

3. En el ejercicio 2026, los ayuntamientos que hubieren delegado en la Diputación Foral la recaudación en vía voluntaria de tributos propios, conforme al correspondiente convenio, tendrán derecho a la percepción de anticipos a cuenta, los cuales no devengarán intereses al considerarse incluidos en el coste del servicio que han de satisfacer a la Diputación Foral.

Los pagos a cuenta se efectuarán mediante entregas periódicas de carácter:

a) Mensual a los municipios con población igual o superior a 2.000 habitantes.

b) Bimestral a los municipios con población inferior a 2.000 habitantes.

Estos abonos se efectuarán únicamente durante los 6 primeros meses del año en el caso del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y durante todo el año en el caso de las cuotas de ámbito municipal del Impuesto sobre Actividades Económicas.

La cuantía de estos anticipos se determinará básicamente por los importes recaudados por el Impuesto de Bienes Inmuebles y por la cuota municipal del Impuesto sobre Actividades Económicas en vía voluntaria en 2025 corregidos, en su caso, por las variaciones derivadas de la modificación de bases imponibles, tipos de gravamen o tarifas. Una vez conocidas las cifras definitivas de la recaudación, se practicará la correspondiente liquidación.

TÍTULO VII DE LA INFORMACIÓN A LAS JUNTAS GENERALES

Artículo 34. Información periódica de la Diputación Foral.

1. La Diputación Foral de Gipuzkoa dará cuenta trimestralmente a las Juntas Generales de la ejecución del presupuesto y de la situación financiera de la Administración Foral, a través de los siguientes informes:

a) Resumen de las modificaciones de crédito.

b) Resumen de la ejecución de los presupuestos en sus estados de ingresos y gastos.

c) Resumen de la ejecución de los compromisos de gasto de carácter plurianual.

d) Balance por partidas de ingreso y gasto, por fases de ejecución.

e) Situación del endeudamiento foral.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

f) Emandako abalak eta abalatutako zenbateko osoa.

g) Egoera balantzea eta galera-irabazien kontua.

h) Ordaintzeke dauden fakturen laburpena, berankortasunari buruzko araudian ezarritako epe haietan betetzen ez denean.

i) Departamentuz departamentu emandako dirulaguntzen zerrenda.

Informazioa formatu digitalean bidaliko da, kalkulu orrietan edo datu baseetan lan egin, aldatu eta aztertu ahal izateko. Txosten bakoitzean aztertzen den hilabetea amaitu eta hurrengoan bidali behar da informazio hori. Epea igarotzen bada Foru Aldundiak komunikazioa bidali gabe, edozein talde batzarkidek gaia Ogasun eta Finantza Batzordearen aztergaien zerrendan zuzenean sartzeko eskatu ahal izango du.

2. Hilabete bakoitzaren lehen hamabost egunen barruan, Foru Aldundiak informazio hau emango du: kontzeptu guztiengatik izandako zerga-bilketa; sarreraren itzulketak; eskatutako eta emandako gerorapen eta zatikapenak; eta aurreko hilabetearen zehapenekin lotuta eskatutako eta ebatzitako barkamen espedienteak.

Horrez gain, informazioa emango da Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiek zerga itunduengatik osotara izandako bilketa bateratuari buruz, aurreko lehen epeari dagokionez.

3. Foru Aldundiak zerga iruzurraren aurka egindako ekintzen berri emango die, hiru hilean behin, Batzar Nagusiei. Informazioak arlo horretan egindako kudeaketaren emaitzak jasoko ditu, hala nola ikuskatutako zergadun portzentajeak eta segmentuak, kudeaketaren ondorioz erregularizatutako ondarea eta baliabideak, eta bestelako datu interesgarriak.

4. Foru Aldundiak Enplegu Publikoko Eskaintzaren Planari buruz hartutako erabakien berri emango die Batzar Nagusiei, erabaki horiek hartu eta ondorengo hilabetearen barruan.

35. artikulua. Foru organismo autonomoek aldizka eman beharreko informazioa.

f) Auales otorgados e importe total avalado.

g) Balance de situación y cuenta de pérdidas y ganancias.

h) Resumen de las facturas pendientes de pago en las que se incumple el plazo de pago establecido en la normativa de morosidad.

i) Listado de subvenciones otorgadas por departamento.

La información será remitida en formato digital, para poder trabajar, modificar y realizar análisis en hojas de cálculo o bases de datos. Esta información se remitirá dentro del mes siguiente al que hace referencia cada informe. Transcurrido el plazo previsto sin que la Diputación Foral enviara la comunicación, cualquier grupo juntero podrá instar a que el asunto quede automáticamente incluido en el orden del día de la Comisión de Hacienda y Finanzas.

2. La Diputación Foral dará cuenta en la primera quincena de cada mes de la información sobre la recaudación habida por todos los conceptos, las devoluciones de ingresos realizadas, los aplazamientos y fraccionamientos de pago solicitados y concedidos, y los expedientes de condonaciones de sanciones solicitados y resueltos en el mes anterior.

Asimismo, se aportará la información sobre la recaudación consolidada de los tributos concertados del conjunto de las diputaciones forales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, correspondiente al período inmediatamente anterior.

3. La Diputación Foral informará trimestralmente a las Juntas Generales, sobre las actuaciones realizadas en la lucha contra el fraude fiscal. La citada información se referirá a los resultados de la gestión en la señalada materia, tales como porcentajes y segmentos de contribuyentes objeto de la función inspectora, patrimonio y recursos regularizados a consecuencia de la gestión y otros datos de interés.

4. La Diputación Foral dará cuenta a las Juntas Generales, dentro del mes siguiente a aquél en que se produzcan, del contenido de los acuerdos relativos al Plan de Oferta de Empleo Público.

Artículo 35. Información periódica de los organismos autónomos forales.



1. Foru organismo autonomoek, hiru hilean behin, informazioa eman behar diete Batzar Nagusiei aurrekontuaren exekuzioari buruz eta beren finantza egoerari buruz, txosten hauek direla medio:

- a) Kreditu aldaketen laburpena.
- b) Aurrekontuen exekuzio mailaren laburpena, sarrera eta gastuen egoerei dagokienez.
- c) Urte anitzeko gastu konpromisoen exekuzioaren laburpena.
- d) Sarreraren eta gastuen balantzea partidaka, exekuzio faseen arabera.
- e) Egoera balantzea eta galera-irabazien kontua.
- f) Ordaintzeke dauden fakturen laburpena, berankortasunari buruzko araudian ezarritako epe haietan betetzen ez denean.

2. Informazioa formatu digitalean bidaliko da, kalkulu orrietan edo datu baseetan lan egin, aldatu eta aztertu ahal izateko. Txosten bakoitzean aztertzen den hilabetea amaitu eta hurrengoan bidali behar da informazio hori. Epea igarotzen bada foru organismo autonomoak komunikazioa bidali gabe, edozein talde batzarkidek gaia Ogasun eta Finantza Batzordearen aztergaien zerrendan zuzenean sartzeko eskatu ahal izango du.

36. artikulua. Merkataritzako foru sozietateek eta foru fundazioek aldizka eman beharreko informazioa.

Merkataritzako foru sozietateek eta foru fundazioek, hiru hilean behin, informazioa bidaliko diete Batzar Nagusiei aurrekontuaren exekuzioari buruz eta beren finantza egoerari buruz, txosten hauek direla medio:

- a) Zorpetzearen egoera.
- b) Egoera balantzea eta galera-irabazien kontua.
- c) Ordaintzeke dauden fakturen laburpena, berankortasunari buruzko araudian ezarritako epe haietan betetzen ez denean.

Informazioa formatu digitalean bidaliko da, kalkulu orrietan edo datu baseetan lan egin, aldatu eta aztertu ahal izateko. Txosten bakoitzean aztertzen den hilabetea amaitu eta hurrengoan bidali behar da informazio hori. Epea igarotzen bada merkataritzako foru

1. Los organismos autónomos forales darán cuenta trimestralmente a las Juntas Generales de la ejecución del presupuesto y de la situación financiera, a través de los siguientes informes:

- a) Resumen de las modificaciones de crédito.
- b) Resumen de la ejecución de los presupuestos en sus estados de ingresos y gastos.
- c) Resumen de la ejecución de los compromisos de gasto de carácter plurianual.
- d) Balance por partidas de ingreso y gasto, por fases de ejecución.
- e) Balance de situación y cuenta de pérdidas y ganancias.
- f) Resumen de las facturas pendientes de pago en las que se incumple el plazo de pago establecido en la normativa de morosidad.

2. La información será remitida en formato digital, para poder trabajar, modificar y realizar análisis en hojas de cálculo o bases de datos. Esta información se remitirá dentro del mes siguiente al que hace referencia cada informe. Transcurrido el plazo previsto sin que el organismo autónomo foral enviara la comunicación, cualquier grupo juntero podrá instar a que el asunto quede automáticamente incluido en el orden del día de la Comisión de Hacienda y Finanzas.

Artículo 36. Información periódica de las sociedades mercantiles forales y fundaciones forales.

Las sociedades mercantiles forales y fundaciones forales remitirán trimestralmente a las Juntas Generales información de la ejecución del presupuesto y de la situación financiera, a través de los siguientes informes:

- a) Situación del endeudamiento.
- b) Balance de situación y cuenta de pérdidas y ganancias.
- c) Resumen de las facturas pendientes de pago en las que se incumple el plazo de pago establecido en la normativa de morosidad.

La información será remitida en formato digital, para poder trabajar, modificar y realizar análisis en hojas de cálculo o bases de datos. Esta información se remitirá dentro del mes siguiente al que hace referencia cada informe. Transcurrido el plazo previsto sin que la sociedad mercantil foral o



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

sozietateak edo foru fundazioak komunikazioa bidali gabe, edozein talde batzarkidek gaia Ogasun eta Finantza Batzordearen aztergaien zerrendan zuzenean sartzeko eskatu ahal izango du.

fundación foral enviara la comunicación, cualquier grupo juntero podrá instar a que el asunto quede automáticamente incluido en el orden del día de la Comisión de Hacienda y Finanzas.